



Eukaristia Jesusek bere mahaira hurbiltzeko egiten digun gonbidapena da.

Guk ere gonbidatzen dugu noizbehinka jendea etxera bazkaltzera edo afaltzera, edo gu gonbidatzen gaituzte (urtebetetzeetan, ospakizunetan...). Gonbidatzea laguntasuna eta maitasuna adierazteko modu bat da. Elkarrekin egon nahi izaten dugu, familiarekin eta lagunekin.

Jesus bere dizipuluekin egon zen bere azken afarian, eta haiekin elkarbanatu zuen ogia.

Kortxoan, koadro koloredun bat daukazue. Zer ote da? Erdian, ogia eta kopa bat daudela dirudi; inguruan, zirkulu urdin batzuk, eta haietako batek gurutze bat darama. Jesus eta apostoluak ote dira? Behean, zirkulu beltz bat dago. Judas ote da, Jesus txanpon batzuen truke saldu zuena?

Gaur, gu gara gonbidatuak. Baina, mahaira hurbiltzean, dena elkarbanatu beharko dugu, gertatzen zaigun guztia, bai gauza onak eta bai gauza txarrak. Zuri-beltzean dagoen orrian, taldeko haurren izenak idatziko ditugu, eta kortxoan ipiniko dugu, koloreak dituen bestearen ondoan.

Badira orri txiki batzuk ere. Hor, haur bakoitzak idatz dezala nor edo nortzuk gonbidatuko lituzkeen etxean bazkaltzera. Orri hori etxera eramango dute.

Dena den, Jesusen mahaira hurbiltzeko, jokabide egokiak landu behar ditugu: apaltasuna, zintzotasuna, barkamena, maitasuna, laguntasuna... Irakur dezatela **56. orrialdean** idatzi dutena.


Jesus, lagunekin ez ezik, bekatariekin ere egoten zen bazkaltzen edo afaltzen, edo begi onez ikusita ez zegoen jendearekin (Zakeorekin, adibidez). Halako bazkari edo afariak laguntasunaren seinale ziren. Izan ere, Jesusek jende guztia maite zuen, eta gaizki portatzen zirenek jokabidea aldatzea eta aurrerantzean zintzo jokatzea nahi zuen.





«Gogoratzen al duzue Zakeoren historia? Zakeo diruduna zen, besteen dirua berarentzat gordetzen zuelako. Baina, Jesus handik zebilela jakitean, **Jesus ezagutzera** joan nahi izan zuen. Eta Jesus Zakeoren etxera joan zen **afaltzera**. Eta, bisitaldi horri esker, **Zakeo aldatu egin zen**, eta ordutik aurrera behartsuei laguntzen hasi zen, eta bere dirua elkarbanatzen.

Guri ere pertsona hobeak izaten lagundu behar digu Jesus ezagutzeak. Mezetara joatea ez da nahikoa; horrez gain, lagundu egin behar diegu besteei, barkamena eskatu behar dugu zerbait gaizki egiten dugunean, besteei barkatu ere egin behar diegu...

Harrerari buruzko letra-zopa daukagu.


Bukatzeko, dena jaso, kandela piztu, eta *Gure Aita* errezatuko dugu.







Harrerako soppa on bat egiteko  
7 osagai aurkitu.



ATERPE  
ENTZULE  
ERRESPETU  
EZKUZABALTASUN  
LAGUNTZA  
MAITASUN  
ONARPEN



# VIII GAIA

## LETRA ZOPA EGINA

